

## TESTUA



Andoni Arabaolaza

## HIMALAIA

Alberto Zerain

Pyrenaicaren zenbaki honetarako, argi genuen Alberto Zerainek protagonismoa izango zuela; izan ere aurreko zenbakia "labean" zela, mendizale arabarraren Annapurna (8091 m) iritsi zitzaigun. Beraz, jarduera horren inguruko berria ezin izan genuen sartu. Baina espero ez genuena zen atal honetan protagonismo bikoitza izango zuenik. Argi genuen Nanga Parbaten aurrera eramaten ari zen xedearen emaitza ez zela zenbaki honetara garaiz helduko. Baina iritsi zen; bai, zoritxarrez, iritsi zen. Eta zoritxarrez diogu mendizale baten kirol zein giza ikuspuntu batetik begiratuta, emaitza txarrena izan duelako. Kontua ez da Nanga Parbat ez igotzea, eta, beraz, arrakasta ez izatea. Kontua da, Mazenoko ertzean izaniko jazoerak Zerainentzat porrot handia izan dela. Bai, 56 urteko mendizalea maratoni-ertz horren magaletan betiko geratu da.

Annapurnan, bederen, arrakasta izan zuen. Udaberrian hasitako espedizio horretara Jonatan Garcia batu zitzaion. Sokada honen helburua alemanen bidetik igotzea zen, hots, bere "segurtasunarengatik" azken urteotan gehien erabili izan den bidea. Baina mendia aztertzen ari zirela (bigarren eta hirugarren kanpalekuen artean), aukera hori baztertu zuten mendiaren goi aldean arrakala erraldoi bat ikusi ondoren. Azkenean, frantziarren edo ohiko bidearen aldeko apustua egin zuten. Eta hura igotzen saiatuko ziren hainbat espedizioekin bat egin zuten.

Lan guztiak partekatu ondoren, maiatzaren 10ean, Zerain eta Garcia Annapurnaren gailurrera heldu ziren. Zerianek aipatu zuen bezala, tontorrera iristea ez zen batere erraza izan: "Gailur zaila eta oso aereo da. Han goian haize asko eta hotz handia egin zigun. Azken 1000 metroak egiteko 10 ordu behar izan genituen. Laugarren kanpalekutik tontorrera ez dago zailtasun tekniko azpimarragarririk, baina urratsa zabaltzen lan eskerga behar izan genuen egin". Arabarrentzat hamargarren zortzimilakoa zen; bizkaitararentzat, aldiz, lehena.

Euskal sokada hau etxera itzuli zen, baina Zerainek Euskal Herrian denbora gutxi egin zuen; izan ere, bere hurrengo xedea zain zuen: Nanga Parbat. Arabarrek egin zituen aurreko zortzimilakoetan ez bezala, oraingo honetan apustu handia egin zuen: Pakistango mendi hori Mazeno ertzetik igo nahi zuen. Baina, ze ote du ertz horrek? Bada, Mazeno ertza zortzimilako batek duen biderik luzeena da: 10 eta 13 kilometro artekoa. Diamir eta Rupal isurialdeak banatzen ditu, eta ibilbidean zehar 6500 metrotik gorako zortzi tontor gainditu behar dira. Nahiz eta ertz horrek pare bat alditan sinatu den, oso-osorik, Nanga Parbateko gailurra arte, soilik behin lortu da. Eta jarduera bikain horren protagonistak Sandy Allan eta Rick Allen eskoziarrak izan dira; "saria", duela bost urte eskuratu zuten.



Zerainek Mazeno ertza aspalditik buruan zuen. 2011. urtean, Txingu Arrietarekin batera hara abiatu zen, baina bikote honek ertz hori "dastatzeko" ez zuen aukerarik izan. Joan den ekainean, berriz, berriro itzuli zen, eta haren alboan Mariano Galvan argentinarra zuen. Biek ala biek girora oso ondo egokituta zeuden, eta, denbora galdu gabe, Mazenoko ertzean sartu ziren. Ekainaren 24tik aurrera, Galvanen eta Zerainen berri ez zegoen. Arabarrek



gainean zeraman racetrackterrak edo lokalizazio gailuak azken seinale bat eman zuten: 150 metroko bat-bateko jaitciera. Alarmak piztu ziren. Pakistango armadako helikopteroak martxan jarri ziren. Batean irten, eta ez zuten ezer ikusi. Eguraldi gaiztoarengatik, beste saio pare bat bertan behera geratu ziren. Eguraldia atertu eta garbitu zenean, astebetera, helikopteroa irten eta bertan zihoazek baiezatu zuten lokalizazio gailuak markatzen zuten

puntuari elur-jausi bat egon zela. Galvan eta Zerain desagertutzat jo zituzten; hots, hilda zeudela baiezatu zuten.

Era horretara, Zerainek zortzimilakoetan izan duen ibilbidea eten egin da. Arestian aipatu dugu, guztira, hamar igo dituela: Everest (1993), Makalu (1995), Lhotse (2001), Gasherbrum I eta II (2006), K2 (2008), Kangchenjunga (2009), Dhaulagiri eta Manaslu (2016) eta Annapurna (2017).

**Alberto Annapurna** ·  
ARGAZKIA: JONATAN GARCÍA